

Urtarrilak 27ko aktaren pasarte bat.

“

- Zertarako atzera begiratu? Bestearen irakurketak entzun eta ezagutu nahi ditut, bestearen betaurrekoak jantzi eta denon iragana nireganatu.
- Bizipenak partekatu eta horien graduazioa; ikuspegi ideologi/politikotik, bihotzetik, honek hurbiltasuna ematen du.
- Ze balore dira irabazle eta zein galtzaile erabaki behar dugu. Ez ze pertsona. Horra jo behar dugu. Horretarako, arrazoia erabili beharko, bizipenak alde batera utzita.
- Ertz guztiak kontutan hartu behar dira: ez diot nire historiari uko egin nahi, nola arrazionalizatu.
- Muga desberdinak daude: ideologikoak, taldearenak, bizitutakoak ematen dizkigunak, egindakoarenak...Hau guztia ahaztuta errelatoa egitea ezinezkoa da. Elkar ulertzera iristea bai ikusten dut, baina gero guzti hori nola idatziko dugu?
- Bestearen ertzak onartu ditzakegu nahiz eta gogorra izan.
- Hizkuntzaren erabilera. Gauza bera esateko hitz desberdinak erabiltzen dira, adibidez; borroka armatua eta terrorismoa. Proposamena; erabili ditzagun substantibo bezela, adjektibo bezela erabiltzeak aldeko edo kontrako jarrera adierazten du. Honen haritik aipatzen da borroka armatua ez dela beti terrorismoa.
- Se explica cómo se entendió la aplicación de la estrategia de la socialización del sufrimiento. Honen inguruan ikuspegi desberdinak adierazten dira.
- Hizkuntza desarmatzearen beharra aipatzen da; hitzez haratago joan, edukietara joan, hitza aldatu daiteke, baia zintzoak izan behar gara esanahiarekin.
- Etikari buruz hitz egin dugu: etikaren ardatzean giza eskubideak eta pertsonaren duintasuna ikusten dira, irizpide hauek partekatzeko beharra adierazten da.
- Gure abiapuntua bestearekiko errespetua eta ulertze nahiak izan behar dira. Biztanle arrunten errelatoa ez da politikoa.
- Iraganaz hitz egiten dugunean, guk “gaur hemen” kokatzen gara eta hortik irakurtzen dugu. Normalean egoera batez ari garenean momentuan bizitu eta pentsatu genuen horretan kokatzen gara, hori erraza ikusten da. Baina zein da “orain” egiten dugun irakurketa?
- Silogismoen¹ arriskuaz aritu ginen, erabili genuen adibide bat: socialización del sufrimiento Oldartzen ponentziatik ateratzen da. “Socialización del sufrimiento” terrorismoa da. Hau jasotzen zuen ponentzia HB-k onartzen du. Beraz HBko kide guztiak terroristak dira.
- Silogismoak gainditzeko errelatoa lagungarria izan daiteke.
- Autokritika aipatzen da. Zergatik egiten ziren barruko kritikak ez ziren kanpora ateratzen? Honetaz hitz egiten da, autokritika bai, baina nork egin behar du?
- Polarizazioaz hitz egiten da, dena zuria edo beltza izan da, nabardurak ez dira ikusi.
- Balore eskala desberdina izan dugu? Edo aplikazio desberdina, eraso edo urraketa eragiten edo jasaten zuenaren arabera?”

1 <http://definicion.de/silogismo/>. Hona hemen kontzeptu honen azalpen zabal bat.